

KRITIKA

Bardeako lokatzetan

Irati Majuelo

Lehendabiziko nobela argitaratu du Xabi Lasa nafarrak Irun Hiria sariaren bidez. Liburu mardula da, anbizio-tsua, zeinetan trama korapilatsuak eta pertsonaia-sare zabalak eusten dioten hirurehun orri pasatzoko istorioari. Nobela beltzaren lurraldeetan barneratu da idazlea, eta thriller odoltsua argitaratu du, dirudienaren eta ezkututzen denaren, usteen eta ustelen arteko terreno labainkorretan sartuta.

Nafarroako Erriberan, Bardeako atarian kokatutako Lurribar herrira garamatza istorioak. Karduga urmaela eta haren inguruko xextrak dira abiapuntua, ura elkarren artean banatzeko arazoak baitituzte landa zabalak lantzen dituzten nekazariak eta herritarren beharrak ase nahi dituen udalak. Liskarrak konpontzera joaten da



'URA EZ BAITA BETI GARDENA'
Idazlea: Xabi Lasa.
Argitaletxea: Elkar.

hara Sara Zaldaiz ingeniaria, Nafarroako Gobernuko ordezkari gisa. Alabaina, laster ohartzen da iskanbila haren atzean badirela kontu ilunagoak ere: putzuaren edukierari buruzko datu faltsuak, enpresarien arteko bilera sekretuak, horniketa-sare zaharrari buruzko planorik eza, adierazpen kontraesankorrak... Gutxinaka, gobernu nahasteko trikimailuetan sartuta ikusiko du bere burua, eta gero eta gehiago ugertzen hasiko da auzia,

desagerpenak, hilketak eta hilketak saiakerak tarteko.

Thrillerrari dagozkion tentsioa, iluntasuna eta gertakari biolentoak txertatzen ditu Lasak, istorioaren muinean dagoen katramila administratibo eta politikoarekin. Idazleak gupidarik gabe eta xehetasunez deskribatzen ditu eszena ankerrak, ekintzen basakeria eta triskatutako gortzek sortzen duten higuina albo batean utzi gabe. Hala, suspenseaz gain, izua ere sorrarazten du zenbait momentutan, argitu gabeko krimenen laborria airean utziz. Usaindu bai, baina ongi korapilatutako istorio-lerroek ez dute azken argazki garbi bat ikusten uzten, bertsio ofizialez harago. *Happy end*-ik ez, beraz.

Pertsonaiei dagokienez, baditu zenbait argi-ilun nobelak, tramari laguntzen ez diotenak. Esaterako, ugaritasunak istorioari konplexutasuna ematen dion arren, hasieran garrantzi

handikotzat aurkezten diren zenbait pertsonaia istoriotik kanpo geratzen dira ondoren, edota informazio zehatz bat txertatzeko erabiltzen dira soilik (Mark, Anje), honenbestez, zalantzan geratzen da ea nobelarako zinez beharrezkoak diren. Sarak berak ere, hasieratik protagonista modura agertu arren, auzia Poliziaren esku geratzearen ondorioz, gero eta presentzia txikiagoa du istorioan. Istripuaz geroztik, beraz, lausotu egiten da haren figura.

Era berean, topikoen gainean eraikita daude pertsonaia asko: Erriberako biztanle kontserbadoreak, enpresari mafiosoak, polizia onberak, politikan sinesten duten langile idealistak eta botereari eustea besterik nahi ez duten politikariak... Aurreikusgarri gertatzen dira, hortaz, mugimendu eta elkarrizketa ugari; areago, idazkeran azalpenarako joera nabarmena dagoela aintzat hartuz gero. ●

KRITIKA


Motzean dabiltzanak...

Imanol Mercero

Literaturak plazera eta irakaspena elkarrekin batuta eskaintzea maite duenak hemen du bere liburua.

Umore handiz jantzitako ipuin honek fabularen ezaugarri asko ditu. Bestalde, kateamenduen bidezko garapena du, zeinetan oinarritzko arazo bat konpontzeko aukeratzen den irtenbideak, are handiagoa izango den arazoa dakarren. Behin eta berriro sei aldiz errepikatuko den sekuentzian, harik eta... zazpigarren eta azken aldian ezustekoa gertatzen den arte.

Aktore nagusiak herritar kexatiak eta alkatea dira, gure gizartearen ezaugarri kritikagarri zenbaiten ereduaren erai-kiak: epe motzeko perspektiba, nagikeria eta enpatia falta. Txanponaren beste aldean, narratzaileak ia amaiera arte eskaintzen dizkien lau aipamenen itzalean, benetako heroiak



'GORA GURE ALKATE JAKINTSUA!'
Idazlea: Txabi Arnal eta Edu Zelaieta.
Ilustratzailea: Belatz.
Argitaletxea: Elkar.

daude, «kanpotik etorritako ehun langile», lan zikina egiten, ordainsaria izango ote duten ez dakitela, herritarrek hartu beharreko arriskuak euren egitera behartuak. Amaieran izango dute kita egiteko aukera, «ez merezi bezainbestekoa», pentsa dezake irakurleak.

Denak iradokitzen du kontakizun irakurterraza dela, irakurle autonomo hasiberriek gozatzeko modukoa. ●

KRITIKA

H letra

Imanol Mercero

Mihi-puntaren puntan: urteari itzulia 365 igarkizunetan dio, osorik, guztiz deskribatzailea den izenburuak.

Izan ere, urteko egun bakoitzeko igarkizun bat proposatzen zaio irakurleari, egutegi baten eran antolatuta. Poesia eta kantak antolatzen diren eran eskaintzen dira, silaba neurtuetan eta errimarekin. Ohikoena, bospasei silabako lau lerrokoak dira, bigarrengoan eta laugarrengoan errimatuta. Adibide bezala, urtarrilaren 1ekoak honela dio: «Hemengo naiz,/ eta horko, eta hango,/ eta ez dizut sekula/ hitz erdixorik esango». Ohartuko zarete metrika ez dela erabat zaintzen, eta pentsa dezagun gainerako 364etan ere adierazi nahiak hartzen diola aurrea hitz neurtuen sistemari.

Buruari eragiteko asmaki-



'MIHI-PUNTAREN PUNTAN'
Idazlea: Xabier Olaso.
Ilustratzailea: Higinia Garai.
Argitaletxea: Elkar.

zun jolasak dira liburu honen ardatz, eta taldeak dinamizatzea helburu. Ukatu gabe liburua bakarka erabilita berdin dela gozamen iturri, antzematen zaio jolas kolektibo bilatzen duela, argien antzeman ere *Jolasean igartzeko* azken atalean dagoen proposamen parean.

Testuinguruari dagokionez, Xabier Olaso da genero honi ekarpen gehien egin dion idazlea, kalitate handiarekin, bidenabar esanda. ●

Ukitu surrealista, ilun eta umoretsuen uztarketak ezaugarritzen ditu haren lanak, baita begirada sustrai sendorik gabeko biztanle amerikarren eta senideen arteko harremanetan jartzeak ere. Haren lan aipatuena artean daude, besteak beste, *Buried Child* (1979; Pulitzer saria irabazi zuen honekin) eta *True West* (1980) antzezlanak; *Paris, Texas* filmeko gidioa (Wim Wenders, 1984); aktore modura parte hartu zuen *Days of Heaven* (Terrence Malick, 1978) eta *The Right Stuff* (Philip Kaufman, 1983) filmak; eta Dylanen 1975eko kontzertu biran idatzitako *Rolling Thunder Logbook* kronika liburua.

Zendu berritan, Smithek honela agurtu zuen idazlea *New Yorker* agerkarian: «Gauaren sakonean deitzen zidan, errepidean nonbaitetik, Texasko herri fantasma batetik, Pittsburgetik hurbil dagoen atsedenekuren batetik, autoa basamortuan nonbait aparkatuta, koioteen uluak entzun bitartean. Baina gehientsuenetan Kentuckyko bere etxetik deitzen zuen, gau hotzean, izarrak arnasa hartzen entzun zitezkeenean». ●